

PRAKTIKA ONEN KODEA GAUZATZEKO PROPOSAMENA, INFORMAZIOAREN EREMUKO (ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO- ZENTROETAKO) PROFESIONALENTZAT

Charo Valverde Tejedor
Ainhoa Arpide Etxano
Belén Castelló Zamora

1. HITZAURREA

Profesionalei bideratutako dokumentu honetan gomendatzen diren jarrera eta estrategiak lagungarri dira eskaintzen den zerbitzuaren kalitatea hobetzeko, erabiltzaileen beharrak asetzeko zein sektore honetako langile bakoitzak bere gaitasuna garatu ahal izan dezan, dagozkion ahalmenen esparruan.

Badakigu, praktika on hauek ez ezik beste zenbait ere gauzatzen direla askotan. Hala ere, ingurunea, bitartekoak eta baldintzak ez dira aldekoak, eta ahalegin hauek ez dute eraginik izaten azken erabakiak hartzen dituzten pertsonengan. Gure ustez, aitzitik, onuragarri da praktika horiek aplikatzea.

Kontua ez datza funtzioen eta zereginen zerrenda egitean, ez baita hau helburua. Jokatzeko moduei, jarrerei eta praktikei buruzko iradokizunak egitean baizik. Profesional askok eman ohi baitiogu elkarri horien berri akatsak ekiditeko, garapena errazteko, gure lanbidean hobekuntzak lortzeko eta gizartean dugun nabaritasuna eta garrantzia areagotzeko.

Gure ustez, "praktika onek" lanbidea sustatzeko estrategiaren alderdi bat osatzen dute, proposatzen den aldaketa lortzeko bitarteko lagungarriak izan baitaitezke.

Hori dela eta, dokumentu hau etorkizuneko **praktika onen kodearen** hazia izatea nahi genuke, jarrera onen proposamen huts eta asmoen adierazpen soil izatera mugatu gabe. Hasierako lan hau osatzeko eta aberasteko, ingurune bakoitzari (liburutegi publikoa, unibertsitate-liburutegia, artxiboa, dokumentazio-zentroa) aplika dakizkioken praktika zehatzen deskribapena egin beharko litzateke.

Betekizun hau nekeza dela kontuan hartuz, komenigarria litzateke etika-kodeetan, deontologia profesionalean, praktika onetan eta abar espezializatutako lan-talde bat sortzea.

2. INFORMAZIOAREN ETA DOKUMENTAZIOAREN EREMUKO PROFESIONALAREN PRAKTIKA ONEN KODEA

Pentsamoldea eta jokabidea aldatzea. Liburuzaintza- eta dokumentazio-zerbitzuen kontzeptu berrietara irekirik egotea. Lantoki dugun erakundera egokitzeko malgutasuna: enpresak edo erakundeak urteen joanean handitu eta aldatu egiten diren entitateak dira. Informazio-unitateek (artxibo, liburutegi edo dokumentazio-zentroek) handitu eta morfologia-aldaketa hauetara guztietara egokitu behar dute.

Lanbidearen izendapen berria zabaltzea. Artxibozain, liburuzain eta dokumentalistak informazioaren eremuko profesionalak gara, baita edukien kudeaketan aditu ere. Gizarteari termino hauek ezagutarazten hasi beharko genuke, termino hauek dokumentu idatzi bakoitzari lotuz.

Adibidez, "Liburuzaina, informazioaren eremuko profesional eta edukietan aditua denez..." edota "informazioaren eremuko profesionalak, hala nola dokumentalistak..."

Gure inguruko **errealitatea behatzea**, eta beste kolektiboengandik ikastea, hauen indarguneak eta ahulguneak kontuan hartuz.

Teknologiaren lagun egitea, eta estrategikoki erabiltzea, gure ingurunean agerpen aktiboa izan dezagun: erabiltzaileak liburutegira edo dokumentazio-zentrorra gutxiago joaten badira, zerbitzu hori erabiltzaileen etxera bertara "eramatea", web-orri baten, posta elektronikoen, zerbitzu birtualen... bidez.

Erabiltzailea "gure unibertsoaren" gunean kokatzea, informazioaren profesionalak (IP) zerbitzatzen duen erabiltzailearen eta komunitatearen, erakundearen... esanetara egon behar du. Gogoan izan behar du pertsona hauengatik eta hauentzat ari dela lanean. Zerbitzuak eguneratua eta kalitatezkoa izan behar du, eta honetaz gain, lanpostuak ahalbidetzen dizkigun ekimenak gauzatu behar ditugu.

Adibidez, behar bezala erantzun gabeko Kontsultak kontrola daitezke, IPak zein esparrutan huts egiten duen jakiteko, edota asebetetasun mailari buruzko inkestak egin daitezke, helburu berberarekin.

Erabiltzaileen nahiei aurea hartzea, proposamenak egitea, ez itxarotea, nork bere elkartearen agintea hartzea.

Adibidez, zerrenda bat egin ahal izango genuke gure erabiltzaileen unibertsoan aurkitutako informazio-beharrekin, IPok epe labur, ertain eta luzera erantzun ditzakegunak zein diren jakiteko.

Erabiltzaileei prestakuntza eskaintzea, erabiltzaileari une bakoitzeko beharren arabera eskaini behar zaion prestakuntzaz ari gara (**alfabetatze informazionala eta digitala**), erabiltzaileek dituzten ezagutzen eta informazioaren eremuko teknologiek eskatzen dituztenen artean sor daitekeen tarte murrizteko. Informazioaren eremuko teknologiak, izan ere, oso azkar ari dira aurreratzen, eta horrek etengabe eguneratzeko beharra sortzen du.

Zehazkiago, OPAC kontsulta inoiz erabiltzen ez duen erabiltzaile-talde bat badela baldin badakigu, kolektibo honentzako prestakuntza-saioak antolatzea, eta ondoren, kanpainak izan duen eragingarritasunari segimendua egitea.

Lan egiten den erakunde, komunitate edo gizartea ezagutzeko konpromisoa hartzea. Zerbitzatzen den gizartea, kultura eta enpresa ongi ezagutzea lagungarri da dokumentazio-zerbitzuaren funtzionamendua ona izan dadin. Ingurunean integratzea. Isolamenduari (borondatezkoari edo ez) aurre egitea, agerpen iraunkorra izatea, eta informazioaren eta ezagutzaren kudeaketaren inguruko arazoei irtenbidea bilatzen lagungarri den pertsona izatea.

Gure zuzendariak inplikatzeko, haiek sinatu edo abalatu beharko lituzketen planen, memorien... bidez: urteko memoria, prozedura-eskuliburuak eta abar. Huetan, zuzendariak berretsi beharko lituzkete ondoko kontzeptuak: helburuak, zeregina, bitartekoak eta abar. Horrek lana hobeto baloratzeko bidea emango lieke.

Gure lana balora dezaten lortu ahal izateko, oso garrantzitsua da idatzizko ekintza-planak gauzatzea, gure instituzioko zuzendariak irakur, sinatu eta berretsi ditzaten; gauza bera esan daiteke urteko memoriei eta jarduera jakinei buruzko memoriei buruz ere. Behin hauek gauzatuta, hainbat bitartekoren bidez zabaldu beharko lirateke (prentsa, Internet...).

Erabaki-hartzeetan parte hartzea. Gaitasun profesionala azalduz, eta asertibitatez erakutsiz bere esku-hartzeek balio erantsia dutela eta arazoak konpontzen dituztela frogatzeko.

Taldeko lana, informazioaren eremuko profesionalen eta enpresako edo erakundeko gainerako profesionalen artean elkarlanean jardunez.

Ezagutza partekatzea, behar adinako praktika profesionalak berritzeko eta sustatzeko ez ezik ideia berriak garatzen laguntzeko eta ezagutza zabaldu nahiz sortu ahal izateko. Komunikaziorako bitartekoak eta bideak sortzea, planifikatzea eta asmatzea, baita sistemak ere, profesionalen artean baliabideak eta ezagutzak partekatzeko (eskura ditugun baliabide informatikoekin) eta gure erabiltzaileekin, zein oro har gizartearekin, komunikazioa oparoa izan dadin.

Beste profesionalengan aliatuak bilatzea. Gure lanbidearen ezaugarriek agintzen dutenez, negoziatzaile onak izan behar dugu, komunikatzeko erraztasuna izan behar dugu eta aliantzak bilatu behar ditugu ahal dugun tokietan. Informatikariak, irakasleak, kultur elkarteak... izan ditzakegu aliatu. Dagokion ingurune jakina aztertu beharko du profesional bakoitzak, aliantza zein tokitan bilatzea komeni zaion ikusteko.

Nork arriskuak bere gain hartzea, helburuak lortzeko beharrezko ikasgai gisa, ez gaitzala beldurrak geldiarazi ekimen sortzaile batek arrakasta eskasa lortuko duela pentsatuz. Horretarako, dagokigun erantzukizun-zatia hartu beharko dugu gure gain, dena delakoa izanik ere, eta zati horren aginteari heldu beharko diogu, denik eta txikiena irudituta ere. Alde batera utzi behar da, gaur egun hain zabaldua dagoen erantzukizuna eskuz aldatzeko jarrera; guri dagozkigun gaitzen errua besteri egozteko joera izaten baita beti: zuzendariei, arduradun politikoei, gobernuari, beste profesionalei...

Biktima-jarrera bazterrean uztea, lanbide hau asko geldiarazten baitute baliabideen, langileen... urritasunak "justifikatutako" jarrera pasiboek. Horren ordez, jarrera aktiboagoa, positiboa hartzea, eskura ditugun baliabideei ahalik eta probetxu handiena ateratzeko, eta gogoan hartuz haxe dela profesional gisa dugun balioa sinestarazteko erarik onena.

Etengabeko prestakuntzarekin eta ikaskuntzarekin konprometitzea. Informazioaren mundua aldakorra da. Mundu hau, izan ere, teknologia berriekin lotuta dago, eta profesionalaren betebeharra da azken berrikuntzen berri etengabea izatea, zerbitzurik osoena eskaini ahal izateko.

Adostutako dokumentu profesionalak gauzatzea edo horiek sortzen laguntzea, egiaz baliagarri izango direnak lanbidearen jardunerako, eta bitarteko gisa erabilgarri izango direnak ideia berriak zabaltzeko ez ezik lanbidearen buru diren talde edo pertsona adituen printzipio-adierazpenarekin bat egin nahi duten profesionaleri babesa emateko.

Jarrera integratzailea agertzea. Liburutegiak, eta oso bereziki liburutegi publikoak, gizartean duen egitekoa integratzailea da, erabiltzaile-mota oro barne hartuz. Hori hala, IPak buruzagitza aktiboa izan behar du, erabiltzaile-mota oro hartuz eta bilatuz, aniztasuna baloratzuz eta gizarte-ezberdintasunak murriztuz.

Adibidez, nolabaiteko arazo fisikorik edo psikikorik duen edo izan dezakeen erabiltzailerik baldin badugu (gorrak, itsuak, mugikortasun murriztua duten pertsonak, tratamendu psikiatrikoan dauden pertsonak...), erabiltzaile hauentzako harrera hobetzeko ikastaroak egiteko asmoa agertzea (zeinu-mintzaira ikastea, liburutegia braille eran seinaleztatzea...).

Kultura-aniztasunaren alde jokatzeta, informazioa eta bitartekoak eskainiz ingurune berean bizi diren kultura ezberdinak hobeto ezagutzeko, eta guri loturiko beste zenbait esparrutan jakin-mina sortuz ezagutza handiagoaren mesedetan.

Gure ingurunean, gutxiengoan dauden kultura-kolektiboak aurkitzea izango litzateke helburu zehatza. Ondoren, erabakia hartu beharko litzateke kolektibo horren hizkuntzan dauden funtsak erostera eta hauen idiosinkrasia gainerakoei ezagutzera emateko materialak erostera bideratu behar den aurrekontuaren zatiari buruz.

Gizartean egiteko integratzailea gauzatzea. Liburutegietan eta, zehazki esateko, udal liburutegietan, errazagoa izan daiteke IKTen bidez izapide administratiboetarako laguntza eskaintzea. Kolektiborik babesgabeenak integra daitezke honela, eta toki hauek era askotariko informazioa lortzeko erreferentzia bilaka daitezke beraientzat.

Kode deontologiko bat egin dadin sustatzea. Gure lanbideak dituen gizarte-inplikazioak oso handiak dira. Konfidentzialtasuna, egile-eskubideak, informazioa eskuratzeko askatasuna eta berdintasuna, kolektibo babesgabeentzako aukera-berdintasuna aisiari, prestakuntzari eta ezagutzari dagokionez... Hauek guztiek esparru profesional soiletik haratago heltzen diren eta etikaren esparruan sartzen diren jarrera eta ezagutza batzuk eskatzen dituzte.

PROPOSA IEZAIOSU PRAKTIKA ON BAT LAN-TALDEARI

Ikus Proyecto CALIMERA [05-10-25 kontsulta] delakoaren Pautas de buena práctica [05-10-25 kontsulta] dokumentua.